

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 200 izen-emate baino gehiago Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriorako oposizioetan

*Hezkuntzak datorren astean argitaratuko du onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda eta frogak ekainaren 13an hasiko dira*

Ostirala, 2019.eko martxoak 22

Hezkuntza Departamentuak datorren astean emango du ezagutzera, iragan otsailaren 13an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Musika eta Arte eszenikoen katedradun kidegoan sartzeko deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda. 28 urteren ondoren lehendabizikoz zabaldu da 22 plaza eskaintzen dituen deialdia.

Guztira, 234 eskaera aurkeztu dituzte 203 pertsonak, izan ere, hautagai batzuek espezialitate batean baino gehiagotan eman dute izena. 203 pertsona horietatik, 180 onartuak izan dira eta 23 behin-behinean kanpoan geratu dira. Zentzu horretan, behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik baliozko 10 eguneko epea izanen dute hautagaiak erreklamazioak egin edota kanporaketa bultzatu duten akatsak zuzentzeko.

Eskaerak honakoak izan dira espezialitatearen arabera banatuta: Klarineta 9 eskaera; Konposizioa 19; Etnomusikologia 13; Gitarra 10, Inprobisazio eta Akonpainamendua 12; Ganbera musika 18; Musikologia 27; Oboe 10; Organoa 4; Pedagogia 7; Perkusioa 9; Pianoa 18; Saxofoia 15; Tronboia 6; Tuba 14; Txistu 4; Biola 6; eta Biolina 6.

Prozesuaren hurrengo pausoak Tribunalen osaketa, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratzea, eta programazio didaktikoen helaraztea (maiatzaren 20 eta 31 bitartean), eta frogen hasiera izango dira.

Frogak 2019ko ekainaren 13an hasiko dira, lehendabiziko ariketaren 1B atalarekin (idatziz gai bat garatzea). Data horretatik aurrera, Tribunal ezberdinek oposaketa faseko gainontzeko ariketak egiteko deituko dituzte hautagaiak.

### Belaunaldi berriak

Goi Mailako Nafarroako Kontserbatorioko langileak egonkortzeko lehendabiziko pausua da deialdi hau. Gainera, jasotako espezializazioen kontratazio zerrendak berritzeko balio izango du. Egun, Goi Mailako Kontserbatorioko behin-behinekotasunak langileen %90 hartzen du, eta horregatik *Eleaniztasun eta Arte Irakaskuntzako Zerbitzuak*, Goi Mailako Kontserbatorioko zuzendaritzarekin batera, 2017ko azaroan lan

eskaintzan plaza horiek sartzeko proposamena egin zuen. Plazak 2018ko ekainean onartutako Lan Eskaintza Publikoan sartu ziren, aurretik Foru Erkidegoko Administrazioaren Mahai Orokorrean sindikatuekin adostu ondoren.

Oposaketan izena eman dutenen ia %80a Nafarroako Foru Erkidegoak dira, eta hala ezerezean geratu da, Hezkuntza Departamentuaren aurka deialdi honek “dei efektua” izanen zuela zioten akusazioak. Gainontzeko %20aren artean hautagai gehienek jatorria Aragoi eta Valentzia dira, nahiz eta, Errioxa, Asturias, Kantabria, EAE, Madrid eta Andaluziatik ere eskaerak jaso diren.

Izena eman duten pertsonen artean, nabarmentzeko datua da adinaren batz bestekoa 37 urteren inguruan egotea.